

Energia eolikoaren oraina eta geroa Euskal Herrian


ENERGIA BERRIZTAGARRIEN alorrean, Nafarroa protagonista handia hartzen ari da Euskal Herrian, energi behararak asetzeko prestatu duten plan mardularekin. Plan hori haize energian dago oinarrituta, hein handi batean. Eta EAEn ere, atzean gelditzeko beldurrez edo, haize energia aprobetxatzen hasteko lehen urratsak ematen hasiak dira jada [ikus atzo EGUNKARIAK kaleratutako Energia eta ingurugiroa gehigarria].

Nafarroan EHN enpresak du energia eolikoaren garapenaren ardura. 1989an Nafarroaren potentzial eolikoak ebaluatzeari ekin zion EHNk. Neurketa estazioetan jasotako datuek ondorio positiboak eman zituzten: Nafarroa energia eolikoak garatzeko lurralde egokia zela ikusi zen eta ondorioz, Iruñea ondoko Erreniega mendi gainean estazio pilotu bat eraikitzea erabaki zen.

Geroztik, 500 Kw-eko 40 errota ipini dira mendi honen gailurrean (guztira, 20 megako potentzia instalatuz). Haize errota bakoitza 40 metrokoa da, eta urrunetik erraz ikusten dira. Batzuek gustuko dituzte modu pausatuan eta etengabe biraka ari diren erraldoi zuri horiek. Beste batzuek, berriz ez.

Ekologista batzuek aurka

Gustatu ala gorrotatu, proiektu pilotua amaituta dago, 60 milioi Kw/ordu ekoizteko ahalmenarekin. Talde ekologista gehienek begi onez ikusten dute proiektua, baina badu etsai amorraturik: Gurelur talde ekologistaren ustez, proiektu eoliko honek azken aldi honetan Nafarroak jasan dezakeen inpaktu larrienetarikoa eragin bide du, paisajea hondatzeaz gain hegaztien populazioan kalteak eragin baititzaie. Erreniegako estazio pilotuak hegaztietan eraginik izan ote duen jakiteko, biologo talde bat jarraipen lanean ari da, hegaztiak errotan hegalekin talka egiten ote duten edo



Erreniegako haize parkea, Euskal Herriko lehen estazio eolikoak.

2010. urterako, Nafarroan guztira

18 parke eoliko eraikitzea da asmoa: guztira 537

megako potentzia instalatu nahi dute

hegaztien portaeran aldaketarik gertatzen ari den aztertuz. Momentuz, informe negatiborik ez dagoela diote arduradunek.

Erreniegakoa amaitu eta berehala, Leizta aldean, Aiz mendian, bigarren parke bat eraikitzeari ekin diote. Bertan instalatuko diren errotak Erreniegakoak baino metro erdi altuagoak dira,

baina %20 energia gehiago ekoiztuko dute (600 Kw-ko 31 errota, hots, 18,6 megako potentzia instalatua). Bigarren parke eoliko honek jarraipen batzorde bat du: astero biltzen dira EHNko, Leitzako Udaleko eta ingurugiro aholkularitza zerbitzu bateko ordezkariak.

Nahiz eta proiektuak oraindik

gobernuaren behin-betiko onarpenik ez eduki, 2010. urterako Nafarroan guztira 18 parke eoliko eraikitzea da asmoa: guztira 537 megako potentzia instalatu nahi dute. Parke eoliko guztien artean 1200 milioi Kw/ordu energia ekoiztuko lukete, hots, Nafarroak duen energi kontsumoaren %45. Gainerantzeko energia beharra energia minihidraulikoaz (%40), biomasaz (%12) eta hondakinetatik eratorritako energiaz (%1) asetu nahi da. Beraz, 2010rako Nafarroak ez luke energi iturri konbentzionalen beharrik.

Nolanahi ere, asmoak politak izan arren, bide horretan oztopo eta harri koskorak aurkituko dituzte ziurrenik. Parke eolikoek ingurugiroan sor dezaketen inpaktua dela eta bat baino gehiago kontra

aterako zaiela da pentsa liteke.

Bardeetarako programatuta dagoen parkea ere hasi da kritikak jasotzen, Bardeak parke natural bihurtzeko proiektuarekin kontraesanegon egon baitaiteke. Eta ez da Bardeetakoa kasu bakarra: aurikusita dauden parkeetariko batzuk, Andiako, Bardeetakoa eta Biloriako Rasokoa, hain zuzen ere, etorkizuneko planifikatuta dauden parke naturalen baitan kokatuta egongo dira.

Beraz, parke natural horien erabilera eta kudeaketa arautegiek erabaki beharko dute parke eolikoak haietan kokatzerik dagoen ala ez. Bitartean ez dago proiektuez baizik hitz egiterik. Bestalde, beste parke eoliko batzuek, Belate, Soratxipi eta Iruñiarrikoak, adibidez, interes bereziko kokaguneetan ezarri nahi dituztelako, inpaktu ikerketa zorrotzak beharko dituzte inguru horien balio naturalen kontserbazioa bermatu nahi bada behintzat.

DEIALDIK

Itoizko urtegiaren aurka

"Itoitz, behin-betiko gelditu, Solidarioak askatu". Lema horren pean, Itoizko urtegiaren aurkako Koordinakundeak manifestaziora dei egiten du, datorren larunbaterako, ekainak 8, Iruñean. Manifestazioa Antoniuti parketik irtengo da 18.00etan.

Autobusak Iruñera

Itoizko urtegiaren aurkako manifestaziorako toki askotatik joango dira autobusak Iruñera. Bilbotik Bizkaiko Itoitzekiko Elkartasun Plataformak antolatzen du (izena emateko: Txomin Barullo, Muga edo Likinianora jo, edo 94-4156658). Gipuzkoan, Eki, Zumaia Bizirik eta Txingudiko Koordinakundeak prestatutako autobusa Irun, Errenteria eta Donostiatik pasatuko da (izena emateko: Donostiako Hontza Liburutegia edo 943-428289). Solidarioekin Bat taldeak Errenteriatik eta Donostiatik igaroko den autobusa prestatu du (izena emateko, hainbat tabernatan). Eguzkik ere antolatu ditu autobusak.

Nazioarteko Egunaren itxurakeria

Ingurugiroaren Nazioarteko Eguna etzidamu da, ekainak 5, asteazkena. Egun hori dela eta, Errausetaren aurkako ekinga egingo da Gipuzkoan. Ingurugiroaren Nazioarteko Egunaren itxurakeria salatu nahian, CCOO, Eki, IU eta HB erakundeek zaborraren tratamenduren aldeko eta errausetaren aurkako ekinga bat prestatu dute ekainaren 5erako.

'Bidegorria Kontxan' kanpaina

Datorren larunbatean Bizikleta Festa egingo da Donostian, Ibaeta auzotik hiriko zentrora doan bidegorria egiteko kanpainaren barnean. Bizikleta martxa arratsaldeko 6etan puntuan hasiko da Alderdi Ederren eta handik Ibaetara joko du, aipatuako bidegorriaren tarte bera eginez.

Energia konbentzionalarekin alderatuz

Energia eolikoak erabiltzea zuhaitzak landatzearen parekoa da. Energia elektrikoa haizea erabiliz ekoiztuz gero, ez da gas toxikorik sortzen, ez eta berotegi efekturik edo euri azidorik eragiten. Kilowatt-ordu 1eko energia ekoizteko ikatza erabiliz gero, kilo bat karbono(IV) oxido isurtzen da atmosferara. Zuhaitz bakoitza 20 kilogramo CO₂ zurgatzeko gai denez, 20 kilowatt-ordu haize

energia ekoiztea zuhaitz bat landatzearen parekoa litzateke.

Energi iturri konbentzionalak 600 megawatt ekoizteko zera isurtzen da atmosferara urtean: 1,5 milioi tona CO₂ (berotegi efektuaren sortzaile nagusia), 28.850 tona sulfuro oxido (euri azidoen eragilea) eta 4.420 tona oxido nitriko (euri azidoen eragilea).

• Maider Etzaide •